

ELGERA


ANE OTXOA DE ZUAZOLA

“Futbola ez da sexuaren araberakoa”





- 3 Bilboko euskalgintza
- 4 Elkarrizketa
- 6 Inkesta
- 7 Normalkuntza
- 8 Erreportajea
- 10 Aholkuak gurasoei
- 11 Literatura
- 12 Musika
- 13 Teknologia berriak
- 14 Ikuskizunak
- 15 Bitxikeriak
- 16 Agenda
- 17 Denborapasak



aurkibidea

ELGERA^A 2. zenb . martxo 2013

- 18 Auzoak
- 20 Lanbide Heziketa
- 22 Kirola



Argitaratzailea: ELGERA LANTALDEA: Rekaldeberriko BHI, San Adriango BHI, Eskurtze BHI, Unamuno BHI, Botikazar BHI, Deustuko Ikastola, Ibarrekolanda BHI, Salesianos Deusto HLBIP, La Salle HLBIP, San Inazio BHI ikastetxea eta B01eko Hizkuntza Normalkuntzako Ulibarri Programa. **Koordinazioa:** B01eko Hizkuntza Normalkuntzako Ulibarri Programa.
Inprimategia: Antza. **Ale kopurua:** 5.000. **Webgunea:** www.elgeraldizkaria.wordpress.com

Berbaizu Euskara Elkarte

Ibarrekolanda BHI: Eneko Irastorza, Jon Ander Pueyo eta Laura Feijo

Deustuko euskara eta kultur taldea da Berbaizu. 2000. urtean sortu zen Deustuko euskaldunak elkartu eta harremanetan jartzeko eta euskaraz bizi ahal izateko ekintzak antolatu eta topaguneak errazteko.

Berbaizun ekintza ugari jorrazteko txokoak daude; batzuk finkoak izaten dira, hala nola, kantugintza taldea, irakurlearen txokoa eta beste hainbat ikastaro modura antolatu dira, hala nola, patinaje ikastaroa, sukaldaritza, dantza afrikarrak...

Berbaizuren eragina handia da Deustun, auzoko ekintza guztietan laguntzen duelako bai antolatzen, bai parte hartzen, hori dela eta honelako lan taldeak daude:

Kulturgintza

Euskarazko kultur ekintzak antolatzen ditu, antzerkiak, kantaldiak, erakusketak bertso-afariak eta lehen aipatu ditugun txokoak.

Jai batzordea

Urte osoan egoten diren jaietan antolakuntza lana egiten du batzorde honek, Deustuko jaiak, Olentzero jaia, Inauteriak, San Juan suak...

Txantxiku Aisialdi Taldea

Talde honen helburua Deustuko haur eta gaztetxoaren artean euskararen erabilera bultzatzea da, eta horretarako asteburuetako ekintzak, asteburupasak edo udalekuak ere antolatzen ditu Deustuko gazte-txoekin batera.

Kar kar gazte taldea

Ondo pasatzea eta gazteei aisial-

dia euskaraz burutzeko aukerak eskaintzea da bere helburua. Horretarako hainbeste ekintza antolatzen dituzte: txangoak San Ferminetara, sagardotegira; ikastaroak: talo ikastaroa, zeinu hizkuntzen ikastaroa; lehiaketak: laburmetraia lehiaketa, futbolin txapelketa

Normalkuntza

Talde honek lan handia egiten du Deustuko denda, taberna eta erakundeek euskara erabil dezaten. Sari bat ere ematen dio urtero, euskararen alde lan handien egiten duen dendari, Errekaurti Saria, hain zuzen.

Euskararen Unibertsoa

Talde honen ardura Ikastetxe, Institutu, Eskola, Euskaltegi eta Ikastola guztien artean euskara erabiltzeko ekimenak sortu eta antolatzea da,

esaterako, Mikroipainen Lehiaketa, Marrazki Lehiaketa, Euskararen Egunaren Ospakizuna

Bestetik, Berbaizuk bere aldizkaria ere badu, *Prest!* aldizkaria, Deustualdeko berriak eta Deustuko herritarrei buruzko kontuak kaleratzen dituena.

Berbaizuk Ramon y Cajal kalean du bere bulegoa eta orain, bulegoaren ondo ondoan *M Ilerenea* ere badugu, areto txiki bat kantaldiak, bertso-saioak edo euskararen loturiko edozein ekitaldi aurkezteko tokirik aproposena.

Guk ondoen ezagutzen duguna Txantxiku da; zortzi urterekin hasi ginen taldean eta urtero-urtero parte hartu izan dugu inauterietan, Deustuko jaietan, auzoan antolatzen diren beste ekimen askotan, primeran pasatzen eta gure auzoa euskaldunago egiten. Orain begirale laguntzaileak gara, baina laster begiraleak izango gara geu ere.



“Futbola ez da sexuaren araberakoa”

La Salle HLBIP
Nagore Ecurra, Maider Loriaux, Lucia Lasagabaster eta Ibon Rejas

Ane Otxoa de Zuazola La Salle ikastetxeko ikaslea dugu. 17 urteko gasteiztarra, Batxilergoko 2. maila egitera etorri da, Athleticek lehen taldean jokatzeko proposamena egin ostean.



Noiztik jokatu duzu futbolean? Nola hasi zinen?

Zazpi urte nituenean. Txikitan aitak Deportivo Alaves ikustera eramaten ninduen. Neba ere futbolean aritzen zen eta jokatzeko grina piztu zitzaidan. Jolastokian mutilekin jokatzeko nuen eta baloiari beldurrik ez nionez atezain jartzen nintzen. Egun batean galdetu zidaten ea talde batean jokatu nahi nuen eta hala hasi nintzen. Zortzi denboraldi eman ditut Gasteizcup taldean jokatzeko, beste bat Gasteizeko Aurrera taldean eta iaiz Athleticen jokatzeko proposamena egin zidaten.

Gogorra egiten zaizu futbolean jokatzeko eta eskolara joatea?

Bai, batzuetan bai, denbora asko galtzen dudalako futbolarekin. Asteazkenean zehar bost egunetik lautan entrenamendua izaten dut eta asteburuetan partidua. Gainera, oso gaztetatik bai Euskal Selektzioan bai Espainiar Selektzioan jokatu dut. Jokatzeko deitzen didatenean eskola egunak galtzen ditut. Hala ere, oso garbi dut ez dudala futbola utzi nahi, ezta ikasketak ere. Taldekideek ikasketak esaten didate. Libre dudan denbora apurra ikasketek eskaintzen diet.

Gainera, aurten etxetik kanpo zaude? Nola daramazu?

Bilbora etortzea proposatu zidatenean ondo pentsatu nuen, erabaki zaila izan zen, Batxilergo 2. maila oso ikasturte erabakiorra da eta. Baina orain gustura nago, bai ikastetxean, bai Derioko egoitzan. Lagun taldea Gasteizen badut ere, taldekideekin ateratzen naiz eta haiek asteburuetan ni jokatzeko ikustera etortzen dira. Familiaren hutsa ere sentitzen dut baina hama-bostean behin etxera joaten naiz.

Zer pentsatzen duzu futbola mutilentzat dela esaten dutenean?

Ez zait batere gustatzen, futbola ez da sexua-
ren arabera. Antzeko esfortzua egiten dugu eta neska batzuk mutilak baino jokalaririk hobeak dira. Gainera, gero eta neska gehiago dabil futbolean.

Izatez, nesken futbola ez du zerikusirik: gure taldean ikasketak gogorak egiten ari den neska asko dago, Medikuntza, Ingenieritza edo Arkitektura. Futbolean jokatzeko gain, ia guztiok ikasi edo lan egiten dugu. Oso bizi-modu normala daramagu. Eta ez dugu mutilekin irabazten dutena irabazten, ezta eurek duten publizitate ere.

Futbol munduan euskaraz egiten da?

Nik bai. Athleticen atezainaren entrenatzaileekin euskaraz egiten dut, gainera partiduetarako oso estrategia ona da kanpotarrek ulertzen ez dutelako. Euskal Selektzioan gehienok euskaraz egiten dugu. Niri partiduetan aginduak nahi gabe euskaraz iritertzen zaizkit, agian aitak txikitzen partiduetan euskaraz egiten zidalako.

Zer esango zenieke kirolari belaunaldi berriari?

Alde batetik, helburuak garbi izateko. Nik garbi nuen goraino iritsi nahi nuela. Eta helburua lortzeko ahalegina egin. Azkenik, zera esango nieke: ikasi, ikasi, ikasi. Niri esaten zidatenean oso gogaikarria egiten zitzaidan, baina orain garbi ikusten dut. Goi mailako oso kirolari gutxi ateratzen dira eta ikasketek aukerak zabaltzen dituzte.



San Inazio BHI

**ANDREA - IKASLEA**

Merkealdi garaiak kontsumoan duen eragina, nire ustez, txarrerako da, saltzen ez diren produktuak merkatzean jendeak behar ez dituen gastuak egiten baititu.

ANA MARIA - AMA

Nire ustez, gaur ditugun prezioak, nahiz eta merkealdian egon, oso altuak dira, gaur egun ditugun soldatekin konparatuz. Hala ere, jendeak aprobetxatuko du arropa eta bestelakoak erosteko.

**CONCHA - MEDIKUA**

Gu merkealdian arropa erosten saiatzen gara. Normalean, arropa urtean bitan erosten dugu: udako eta neguko merkealdian, horrela diru asko aurrezten dugu. Nire ustez, aurrezteko oso modu egokia da.

BLANCA ESTHER - DENDARIA

Eragin gutxi, krisi egoera honetan urteko edozein alditan dendetan eskaintzak aurki ditzakegulako. Gainera, gero eta outlet gehiago daudenez ez dago merkealdira itxaron beharrik.

**MERCEDES - LANGABETUA**

Nik ez dut uste merkealdi garaiak eragin handirik duenik kontsumoan. Gainera, nire iritzia da ez genukeela gehiago kontsumitu behar merkeago egoteagatik; ondo dago merke erostea, baina beharrezko gauzak badira.

JAIME - IRAKASLEA

Kontsumoa asko handitzen da merkealdian. Baina, kontuz! Denda batzuk zintzoak dira baina beste batzuek aprobetxatu egiten dute gauza zaharrak saltzeko. Nire ustez, merkealdiak oso ondo daude luzerako diren gauzak erosteko; txamarak, zapata onak, tresna elektronikoak... Gora merkealdia!



Hezkuntzan euskararen normalizazioa bultzatuz

Salesianos Deusto: Ander Garcia, Saray Gonzalez, Iker Mayo eta Naia Molinos

Ulibarri Programa Hezkuntza Sailak bideratzen duen programa da, honen bidez euskararen normalizazioa bultzatu nahi da hezkuntza komunitatean.

Hizkuntzaren erabilera handitzea da normalizazioaren helburua. Horretarako, eskola eragile garrantzitsua da eta aintzat hartu behar dira eskola-komunitatea osatzen duten: ikasleak, irakasleak, gurasoak... adostasunak bilatuz, helburu lorgarriak jarriz, urratsez urrats aurrera eginez.

Ulibarri Programak eskolaren ahalginean laguntzea, baliabideak eskaintzea, eskolen arteko koordinazioa eta lankidetzaren sustatzea du helburu. Ikastetxe bakoitzak Plan osatu bat eratu behar du, hezkuntzako normalizazio ekimen guztiak barnebilduz. Plana eratzean kontuan hartzen dira: metodologia, irakasleen prestakuntza, testuinguru soziolinguistikoa, etab.

Bilboko Salesianos Deusto Ikastetxean, Ulibarri Programako Ikasturteko Planaren barruan urtero hainbat ekintza burutzen ditugu; horietatik aipatzekoak dira Lurraska edota Sukarrietako egonaldiak.

Gure ibilbidea duela urte batzuk hasi zen Lurraska izeneko baserri-eskolan. Bertan naturarekin erlazionatutako ekintza dibertigarriak egin genituen: esate baterako, ogia egin, animaliak zaindu, bustinarekin animalien oinatzak sortu... Orduan LHko bigarren mailan ge-

unden eta ahaztu ezin ditugun bi egun paregabe igaro genituen.

Bi urte geroago, Lurraskara joan ginen berriz; lekua errepikatu genuen, baina esperientzia ezberdina izan zen. Han egindako ekintzak dibertigarriak eta entretenigarriak izan ziren: zaldian ibili, animalien ikuilua garbitu, diskotekan dantzan egin eta abar.

Beste esperientzia bat izan genuen, Sukarrieta izeneko leku polit batean duela urte bete. Han tailerrak egiten genituen, adibidez: bideogintza, ehungintza, kuadernaketa eta abar. Tailer horietan beste ikastetxe batzuetako ikasleekin batzen ginen, talde berriak

sortuz. Bi proiektu landu genituen: Lurra eta Ura.

Oso esperientzia interesgarriak iruditu zaizkigu beste ikastetxe batzuetako ikasleekin elkarbitzea eta beraiekin euskaraz mintzatzea eta jolastea. Bertako begiraleek euskara erabiltzera bultzatzen gintuzten eta gu ahalegintzen ginen, esfortzu handirik gabe, izan ere, oso gustura genuden. Horrelako ekintzekin euskaraz gehiago mintzatzea lortu nahi genuen eta uste dugu lortu dugula.

Bisitu ditugun lekuetan pilo ikasi dugu; gainera primeran pasa dugu. Esperientzia errepikatzeko desiratzen gaude. Ia datorren kurtsioan nora eramaten gaituzten!



Botikazar institutuan 1. mailan geundela, gure ekonomia irakasleak, Iñakik, aholkatuta Vicente Ferrer Fundazioarekin (VFF) jarri ginen kontaktuan ekologiaren gainean lan bat egiteko. Horrela, Anantapurreko ikastetxe batekin harremanetan egon ginen, gure ikastetxeak eta bizitzak elkarri aurkezten.

Botikazar BHI
Garazi Calle eta Itziar Manero

Gutxirekin asko lor daiteke

VFFak egiten zuen lana ikusita, gure irakasleari lehenengo eta guri geroago zerbait gehiago egitea bururatu zitzaigun. I akik bizikleten proiektuaz hitz egin zigun eta oso proiektu interesgarria iruditu zitzaigun. Helburua: dirua jaso bizikletak erosteko eta kurtsu amaieran, Selektibitatea egin ondoren, VFFkoekin Indiara joatea zen gure proiektuaren emaitzaz bertan jabetzeko.

Horregatik, lanean hasi ginen patio orduetan tortilla pintxoak, bizkotxoak eta hainbat gauza saltzen, hamazazpi bizikleta erosteko diru nahikoa lortzeko. Gurekin batera beste hainbat irakaslek jardun zuten, batzuk etxean egindako gozokiekin eta beste askok egunero pintxoak erosten gure ikaskideekin batera.

Neskak eta emakumeak okarren

Indiako emakumearen egoera oso txarra da, bai herrian, bai gizartean eta bai familian. Honek eragiten du, familiako ume guztiek ikasketekin jarraitu ezin izatekotan, neskak izatea etxean gelditzen direnak. Gehienetan nekazal zonaldeetako herrietan Lehen Hezkuntza baino ez dago, eta Bigarren Hezkuntza egiteko beste herri batera mugitu behar izaten dira. Honek arazo pila dakartza komunikabideak oso eskasak edota garestiak baitira. Hau dela eta, fundazioak ikusi zuen irtenbide bat bizikletarena zela, horrela neskek, beraien herrietatik Bigarren Hezkuntzako eskola dagoen herrira bidaiatu ahal izango dute arazorik gabe.

Gure egonaldian, hainbat neskek euren istorioak kontatu zizkiguten. Neska batek bederatzik kilometro zituen bere herritik eskolara. Lehen autobusa erabiltzen zuen baina honek arazo asko zekartzan, egunean bi edo hiru klase galtzen zituen, eta gainera oso urduri jartzen zen berandu heltzeagatik, goizeko otoitza galtzeak zigorra zekarrelako.

Gure egonaldiak iraun zuen zortzi egunetan bisita asko egin genituen. Nahiz eta denak izan ziren interesgarriak eta aberasgarriak guretzat, bizikletekin erlazionatutako proiektua izan zen gogotsuen itxaroten genuena.

Liburua salmetan

Azkenean heldu zen eguna eta gure bisitak hartu zuen benetako zentzua, VFFak urteetan aurrera daraman lanaren parte sentitzen ginen. Bisita honek ere, aurretik egindakoaz pozteaz gain, hurrengo urteetan lanean jarraitzeko gogo gehiago eman zigun. Horren adibidea, oraintxe salmentan jarri dugun liburua: *Yo no mont en ricksaw*.

Asko pozten gara momentuan hartu izandako erabakiaz eta gure irakasleak eta fundazioak eman ziguten aukeraz. Bidaia honen ondoren gure bizitzak berdin jarraitzen badu ere, gure inguruan duguna beste modu batean ikusten ikasi dugu eta elkarlanak eta kooperazioak duen garrantzia argi geratu zaigu.



Seme-alabak eta euskara

Gurasoak seme-alaben eredu zarete. Oso garrantzitsua da euskaraz dakien bikotekideak haurrari euskaraz egitea.

Zer egin?

Euskaraz hitz egin. 1) Gure hizkuntza delako. 2) Euskara jasotzeko modurik naturalena, errazena eta eragingarriena delako. 3) Euskara aberatsa ziurtatzeko oinarritzkoa delako.

Euskara eskaini eta eskatu. Haurrak zaintzeko beste norbaiten laguntza baduzue (haur zaintzaileak, aitona-amonak...), ziurtatu haurrarekin euskaraz egiten dutela. Gauza bera, eskolaz kanpoko edozein ekintzatan (kirola, musika, dantza...).

Zer ez egin?

Euskaraz umearrekin bakarrik egin. Zer ikusi, hura ikasi dio esaerak. Haurrak euskara umentzat bakarrik dela ikusten badu, hain ume ez denean jokaera hori ontzat eman dezake.

Lasai, eskolan ikasiko du. Haurrak euskara jasotzeko eta erabiltzeko ardura ezin zaio eskolari bakarrik utzi. Gauzak ongi egiten hasteko, etxetik eta ongi egiten hastea da onena.

Nola hobetu?

Euskaraz eginez. Oinarritzkoa da euskaraz dakien bikotekideak haurrari euskaraz egitea.

Motibatuz. Bideak jarri haurrak euskaraz egiteko ohitura har dezan, eta babestu eta indartu haren ahalegina.

Zerori. Hasieran, haurrarekin harremanak ahoz izaten dira gehienbat. Ondoren, pixkanaka, idatzizkoa ere izaten hasten da (etxeko lanak egiten laguntzeko...). Haurarentzat lagungarri izango da zu euskaraz alfabetatua egotea, eta zuretzat, berriz, oso esker onekoa.

Los padres sois el ejemplo para vuestros hijos. Es muy importante que el miembro de la pareja que sea euskaldun hable al niño en euskara ¿Qué hacer?

Hablar en euskara. 1) Porque es nuestra lengua. 2) Porque es la forma más natural,

eficaz y efectiva de aprender el euskara. 3) Para garantizar una buena competencia lingüística en euskara.

Ofrecer y solicitar. Si vais a necesitar ayuda para cuidar al niño, procurad que la persona o el servicio que vaya a encargarse de dicha tarea conozca y use el euskara con el niño. Lo mismo se puede recomendar cuando vayáis a inscribir al niño en cualquier actividad extraescolar (deporte, música, danza...)

¿Qué no hacer?

Indiferencia. No se debe actuar con indiferencia respecto al proceso de aprendizaje y uso del euskara que haga el niño. Todo lo contrario.

¡Total, ya aprenderá en la escuela! La escuela desempeña un papel muy importante en el aprendizaje del niño, pero, para que el proceso se desarrolle con normalidad, también debe sustentarse en el uso extraescolar.

¿Cómo mejorar?

Hablando. Es básico que el conocimiento de euskara que tiene el miembro euskaldun de la pareja lo transmita usando con el niño o/a.


Motivando. Es importante animar y reforzar el proceso de aprendizaje y el hábito del uso del euskara.

Aprendiendo. No es tarea fácil, pero tampoco imposible, ni mucho menos. Son muchos los padres y las madres que han empezado a aprender euskara o a mejorar sus conocimientos. No es imprescindible obtener un título. Un objetivo puede ser el hacerse con un nivel suficiente como para comunicarte con el niño o/a, contarle cuentos, canciones...

Deustuko Ikastola

Amodiozko gutuna... Seguru?

San Adrian DBH



Joseba Saenz

Maite zaitut. Zure begiak llargia eta Eguzkia bezalakoak dira, zure ilea urrezko urjauziak bezalakoak, zure belarriak zeruko hodeiez eginda daude, eta zure sudurra izar hautsez.

Lo egitean, zurekin amets egiten dut, baita esnatzean ere. Zure hankak lirainak dira, luze baino luzeagoak. Nire gaueko beldurrak kentzen dituen zara. Maite zaitut. Goizeko haize korronteak eta mendiak baino gehiago, askoz gehiago. Euria egiten badu, zuregan daukadan maitasunak uretatik babesten nau.

lलगian etxe bat egingo nizuke, baita nahi duzuna ere. lलगian edo nahi duzun lekuan. Nahi duzun momentuan.

Zu definitzeko hitz bat aukeratu behar banu, mundua deituko zintuzket, niretzat guztia zarelako.

Hau da nik zutaz sentitzen dudana, espero dut zure nireganako sentimenduak berdinak izatea.

Ez, gezurrak esateaz aspertu naiz, orain zutaz benetan pentsatzen dudana esango dut:

Egia esan, ez zaitut maite. Zure begiak kroke-tak bezalakoak dira, zure ilea espagetiak beza-

lakoa, zure belarriak pizza zatiz eginda daude, eta zure sudurra haragi xehatuz. Espero dut Argi anok ez harrapatzea, bestela kazolara sartuko zaitu.

Lo egitean, zurekin amets egiten dut. Nire amesgaitz txarrenak dira. Zure hankak oilaskoenak bezalakoak dira, lodi baino lodiagoak. Nire gaueko beldurrak sikologo batek ikustera eraman ditut, ZUK izutu dituzulako. Lehen esan dudanez, ez zaitut maite, eta goizeko aire korrontez eta mendietaz ez dut hitz egingo, seguraski zu ez zarelako inoiz egon mendi baten tontorrean. Zuregan dukadan maitasuna ez da euritik babesten nauena, izkinako txinatarrean erosi dudan euritakoa baizik.

lलगian etxe bat nahi baduzu, zuk zeuk egin, baina nik ez dizut erosiko, gainera, oxigenorik ez dagoenez, hil egingo zinen.

Zu definitzeko hitz bat aukeratu behar banu, mundua deituko zintuzket, lodia zarelako.

Hau da nik zutaz sentitzen dudana, espero dut zure nireganako sentimenduak ezberdinak izatea, inori ez zaiolako gustatzen besteek isekatea, baina zu ez zarenez benetakoa... Ala bai? Zelako beldurra, tira, gauean lo egitea kostatuko zait.



ITZIARREN SEMEAK... Horiek ditun/k mutilak!

Azken urteotan euskal talde handien artean leku bat irabazi duen talde hau, Mungian jaio zen 2006an. Geroztik, bere reggae-ska-punk doinu bereizgarria Euskal Herri osotik zabaldu dute baita atzeritik ere.

Beraien lehenengo diskoarekin hainbat herriko jaietan jotzea lortu zuten ska doinu alaiekin jai giro aparta sortzen zutelako.

Benetan aditzera eman ziren 2010ean Bi-zkaiko Golfoak' diskoa ateratzean izan zen, non taldearen hobekuntza nabaria antzeman daitekeen.

Ordur geroztik ez dira geldirik geratu eta beste bi disko kaleratu dituzte 'Lehen lerroan' (2011n) eta 'Dale Candela' iazko Durangoko azokarako.

Beren hitzetan: egungo gizarteari kritika egitea da gai nagusia, hala ere, beste hainbat talderen bertsioak ere egin dituzte: The Clashen *Guns Of Brixton* edota Negu Gorriak taldearen *Amodiozko Kanta*.

www.itziarrensemeak.com



BIZARDUNAK Irlandar bihotza nafar gorputzean

Bederatzi lagunek osatutako talde nafarrak ere bere hirugarren diskoa atera berri du Durangoko azokarako.

Alkoholez, jai giroz eta polemikaz blaitutako taldeak bere doinu zeltekin Pogues eta The Dubliners taldeetan oinarritua, Euskal Folk Erradikala, beraien deriztoren moduan, Euskal Herri osoan aditzera eman dira eta bere le-

tra kritiko eta ironikoekin egungo gizarte osoa astindu dute.

Beraien azken lan honetan 'Ur ederra kirats in-finituan' haien estiloan aldaketa bat nabari da gitarra elektrikoaren barnerapenarengatik.

www.myspace.com/bizardunak

Kode berriak deskubritzen

Deustuko Ikastola
Jone Idigoras, Rebeca Galvez eta Ane Garay

Joan den abenduan, Durangoko Liburu eta Disko Azokara joan ginen, Deustuko Ikastolako DBHko 3. mailako ikasleak. Heldu bezain laster, irakasleek orri bana eman ziguten disko eta liburuei buruzko informazioa apuntatzeko.

Minutu batzuk itxaron behar izan genituen azokara sartzeko, eta bitartean, elkarrizketa bat egin ziguten.

Behin barruan, nahi genituen liburu eta diskoak erosi eta gero, Maite Go irekin, www.euskaljakintza.com webguneko arduradunarekin, egon ginen jolasean. Gin-kana moduko bat zen eta mugikorreko aplikazio batekin QRak bilatu behar genituen. QR bakoitzean, letra bat zegoen eta letra haiekin hitz bat osatu behar genuen;

hitza GOZATU zen. Joko horri esker, ikastolako ikasle batzuek liburu batzuk irabazi zituzten. Esperientzia ezin hobea izan zen. Azkenik, Maite Go irekin argazki bat atera genuen.



Zer dira QR kodeak?

Ezagutzen dituzun hainbat produktuetan agertzen zaizkigun barra-kodeak dira. Bi dimentsiotako barra-kode hauek, matrize baten itxurako lauki zuri-beltzak dira eta ohiko barra-kodeen aldean informazio gehiago gorde dezakete.

Horretarako, nahikoa duzu zure saketako telefonoan, QR kodeak irakurtzeko aplikazioa jaitea. Aplikazio honen bidez, QR kodeari argazki bat ateratzen zaio eta horrela barruko informazio osoa irakur dezakegu.

Ezetz asmatu beheko kodeak zer informazioa duen?

SOUNDCHECK taldea

2012an, Harrapazank Eszenatokia lehiaketa ospatu zen Bilborock aretoan, aurten ere ospatuko dena. Musikaz, dantzaz eta antzerkiak gozatzeko aukera bikaina eman ziguten Bilboko gazteek. Nekane eta Ainhoa, Soundcheck taldekoak, irabazi zuten, eta haien esperientzia kontatu digute.

Zergatik hartu zenuten parte lehiaketan?

Elkarrekin musika jotzen genuen 2009tik eta Harrapazank oso aukera ona iruditu zitzaigun gehiago ikasteko. Ez ginen inoiz eszenatoki batera elkarrekin igo, beraz gure lehen aldia izan zen. Ez genuen irabazi nahi, esperientzia berri bat bizi baino ez.

Nola izan ziren kastinak?

Ez zen kastinik egon, sailkapen gala bat egon zen. Aurretik, Enkore taldeko Xabi Hoo-rekin entseatu genuen eta aholkuak eman zizkigun. Martxoaren 17an, sailkapen galan jo genuen, eta finalera pasa ginen.

Zein izan zen saria?

1.500 €-ko bonoa. Beste talde irabazle bat ere egon zen, beraz saria banatu behar izan genuen. Baina, dudarik gabe, guretzat benetako saria urte amaieran heldu zen, Harrapazank programakoek deitu zigutenean 2013ko kanta ofiziala egiteko.

Nolako izan zen zuen abestiaren grabaketa prozesua?

Enkore taldearen estudioan grabatu genuen. Gure abestia (Ametsak) konposatu genuen gitarrekin, gero estudioan instrumentala (bateria, baxua) grabatu ziguten Enkore taldekoek, eta azkenik arratsalde batean gure ahotsak sartu genituen. Oso esperientzia polita izan zen, eta estudio batean grabatzen ikasi genuen.

Bideoklipa ere grabatu duzue, ezta?

Bai, orain dela gutxi bukatu genuen grabaketa. Bilbotik grabatu genuen, bi egunetan. Las-ter egongo da YouTube!

Musikarekin jarraituko duzue?

Noski baietz! Talde oso bat egin nahi dugu, jadanik bateria eta baxua bilatzen ari gara. Bilborocken entseatu nahi dugu eta ahal bada, maketaren bat grabatuko dugu urte honetan.

Eta azkenik, Bilboko gazteei Harrapazanken aurkeztea gomendatuko zeniekete?

Bai! Asko ikasten da entseguetan, jende berria ezagutzen duzu eta gustatzen zaizuna (musika, dantza) eszenatoki batean egiteko aukera izatea itzela da!

harrapazank.com





Zer da BEREZKO ERRESERBA? Erreserba super naturala?

Euskara bitxian idatzitako hamaika kartel topatu ditugu han-hemenka. Barre apur bat egin nahi duzue besteen hanka-sartzeekin?

CO, CO, CO... IruñeCo autobus geltokia!!!



Ez dago Carrefourren euskara ulertzeko manierarik!

Bide ZIKLABLEak ez ditu L hizki gehiegi?



Zer da Arreta Lehendarra? Lehenengoa? Azkarrena? Lehen planetako?



Larumbatan arratsaldez itxita... ummmMMM???

Uretara lasai salto egin ez baitago isunik, IZUNA baizik!



Plaza? Ez! Herriko PLAZTA!!!



IPARRALDEKO POLITA = BONITO DEL NORTE, itzulpen zehatzegia, ezta?





Kultur ekitaldiak

BERTSOLARI GAZTEEN FINALA

Noiz: 2013.03.29 - 22:00

Non: Bilboko Kafe Antzokia

Sarrera: Doan

www.kafeantzokia.com



JAMES HUNTER SIX

Noiz: 2013.04.11 - 21:30

Non: Bilboko Kafe Antzokia

Adina: 18 urte baino gazteagoak ezin izango dira kontzertu honetara sartu

Sarrera: 17€ - 21€

www.kafeantzokia.com



RAMMSTEIM - Made on Germany

Noiz: 2013.19.04 - 22:00

Non: Bizkaia Arena

Sarrera: 47€ - 52€ - 55€

Adina: 16 urte baino gutxiago duten umeek tutore batekin joan beharko dute

bilbaoarena.com



Rekaldeberri BHI
Jessica Martinez, Aitor Torrecusa, Diana Murcia



THE QUIREBOYS

Noiz: 2013.05.10 - 22:00

Non: Bilboko Kafe Antzokia

Adina: 18 urte baino gazteagoak ezin izango dira kontzertu honetara sartu

Sarrera: 17€ - 20€

www.kafeantzokia.com



JEFF HERSEY & THE HEARTBEATS

Noiz: 2013.05.22 - 21:00


Non: Bilboko Kafe Antzokia

Adina: 18 urte baino gazteagoak ezingo dira kontzertu honetara sartu

Sarrera: 10€ - 15€

www.kafeantzokia.com





SUDOKU

Ba al dakizu zertan datzan joko hau? Hutsuneak bete behar dituzu zenbakiak idatziz (1-9). Zutabe, lerro eta talde bakoi-tzean ezin dituzu zenbakiak errepikatu.

	5	6					3	
		7		6	9			
		2		5		6	7	8
	8		6		3			
	3	1	9		2			6
2	6		7		5		9	3
		3		2	6	5	1	9
6				9			4	7
9				3				

HIZKI-ZOPA

Dakizuenez, orain dela gutxi INAUTERIAK ospatu ditugu. Bila itzazu Euskal Herriko pertsonaia ospetsuenetarikoa hauek.

ATORRAK - ERRALDOITXOAK - HARTZA - JOALDUNAK - KOTILUNGORRIAK - MAMOXARROAK - MARKITOS - MIEL-OTXIN - ZAKUZAHARRAK - ZAMALTZAIN

M B X Y P C B H K Z Z N K L Q V A R
 X K J G T C A J O A L D U N A K T B
 U T A M B R V Y T N J C S N E J O G
 U Q X O T F R A I X M T M R M D R O
 T T I Z R G H A L T V A R O J X R K
 W G A U K R Z E U V B A R Z T O A N
 Q S U P H T A K N C L X B K E Y K G
 T J U P L K S X G D E O D P I G D F
 E K L A J A H V O I R X N U Z T G Z
 I Z M U Y V U I R M R M Z B N R O M
 I A G T G Z T Q R X A J G C I V W S
 Z D O J Q X B M I V Z M C M X T P E
 N W S U O D F L A P W R L V T B R S
 H Z D A X E Z P K R T Y U D O O G F
 A N K A R R A H A Z U K A Z L Q G Q
 W M F G Q L W Y X A E E D T E C G Q
 K Z L O K Z U U U O Z N C T I L M Q
 C R C A H B K B T P K L P D M Q J Z

GURUTZEGRAMA


Oraingoan, euskal mitologiako pertsonaia idatzi behar dituzu ondorengo azalpenak kontutan hartuta.

Goitik behera

1. Begi bakarra duena.
2. Ahateen hankak dituztenak.
3. Azken jentila da.
4. Bizarduna eta ile luzeduna da.

Ezkerretik eskumara

5. Olentzeroren laguntzaileak dira.
6. Kobazulo batean bizi da.



Arangoiti auzoa

Deustuko goi aldean kokatuta dago, Bilbon. Arangoiti auzo txikia eta lasaia da; eta berdegune zabalez inguratuta dago. Bere izenak goiko harana esan nahi du.

Arangoitik hainbat enkantu ditu eta gehienak naturarekin lotuta daude: ortuak, lorategiak, landareak, animaliak... Baina politena, auzo hau herri bat bezalakoa dela, jende guztiak elkar ezagutzen du eta ez dago beldurrik umeak bakarrik uzteko, beti norbait ezaguna egongo delako.

Arangoitin, Espainiako herrialde guztietako jendea bizi da eta guztiak ezagunak dira. Baditu alde txar batzuk ere: zurrumuru eta txutxu-mutxu asko daude guztiek elkar ezagutzen dutelako. Beste oztopoa, auzoan sartzeko aldapa handi bat igo behar dela eta helduentzako oztopo bat da, baina orain hobetzea lortu dute O1 eta A6 autobuseko lineak ipini dituztelako. Lehen igogailu bat zegoen, San Pedro plazatik Arangoitiko beheko aldera eramaten zintuen edo alderantziz, baina hainbat arazo izan zituen: euria egiten zuenean, ura sartzen zen, eta gertakari honen igogailua urpetzea eta geldirik geratzea eragiten zuen, horregatik itxi egiten zuten.

Arangoitiri buruz hitz egiten dugunean ezin ditugu ahaztu erosketak

egiteko lekuak. Auzo txiki bat da eta dendak ditu, baina ezin duzu nahi duzun guztia aurkitu. Den-dei buruz hitz egiten badugu lau okindegi, fruta-denda bat, Eroski txiki bat, bi harategi eta kiosko bat daude. Horrela ikusita hainbat denda direla ematen du, baina benetan ez dago produktu desberdinen aukera handirik. Eroski ondo dago, mota guztietako produktuak saltzen dituztelako, baina oso txikia da eta ezinbestekoa baino ez dago bertan.

Auzo honek hainbat eraikin polit ere badauka, adibidez eskola. Asteburuetan bertan sartzeko eta patioetan jolasteko aukera dago. Aspaldi, gauza erakargarri gehiago zeuden patioan hainbat animalia desberdin zeudelako eta umeak beraiekin jolas zezaketelako, baina animaliak gaixotu ahal zirenez eta biztanleak kutsatu kendu egin zituzten.

Edonork paisaia politak ikusi nahi baditu, Arangoitin ikuspegi eta behatoki ederrak daude; adibidez, Buena Vista eta Miramar parkea.

Gure aldetik, Arangoitira etortzerara gonbidatzen zaituztegu. Beharbada ez da auzo polita, beste batzuekin konparatuz, baina jende berria ezagutzea, ondo pasatzea eta paisaia politak ikustea ziurtatzen dizuegu.





Zereginen Ikaskuntza

Gelako ikasleekin solasean

Hainbat arlotan aritzen gara normalizaziorantz: lan prestakuntza eta enpresa praktikak enplegu babestuan zein arruntean, lan funtzionala tailer desberdin bidez (sukaldaritza, lorategia, autonomia lortzeko tailerrak ...). DBHko eta ziklo formatiboetako geletan parte hartzen dugu hitzaldi edo ekitaldien bidez eta klase inklusiboen bidez.

ESKURTZE BHI: aateskurtze.blogspot.com

Interneten sartu gara, eta zer ikusi dugu? Eskurtze BHIko ikasle talde baten bloga : DENOK BATERA du izena. Arantza, Usoa, Alejandra, Garbi e, Irati, Sara, Armando eta Angie dira blog honen kudeatzaileak Garbi e eta Esther irakasleekin batera. 16-20 urte bitartean daude denak. Eurak dira berriak idatzi, argazkiak sartu, eta itxura egokia emateko ardura dutenak.

Blogak hiru urte daramatza dio Garbi e irakasleak garena eta egiten duguna erakusteko aukera ematen digu, gainera, teknologia berrien eskutik, bizi garen munduan kokatzen gaitu .

Eta benetan gauza asko egiten dituztela: Aratustea, Truke-Azoka, Boteroren zein Ukitzeko Artearen erakusketetara bisitak, Etxerako aurrekontu-tailerra, Genero bortizkeriaren aurkako tailerra, Bilboko Zubiak ezagutzeko irteera... eta beste hainbat!

Boteroren erakusketaren ganean, 80 urte egin dituelako omenaldia egin diogu, bere biografia prestatu, erakusketa ikusi, koadroak pintatu eta abar , azaldu digu Sarak. Eta Angiek azpimarratu digu loreen koadroak, hiru koloretan pintatuta agertzen denak bere arre-ta erakarri duela. abardurak ere adierazi dizkigute: 79 koadro eta eskultura bat izan dira erakusketan .

Truke-Azokarena ere deigarria egin zaigu, azoka antolatzeaz gain, birziklatzeko mate-



rialeekin bitxi zoragarriak egin baitituzte gero trukean eman ahal izateko

Eta lanean jarraitzeko asmoa dago, hemen ez dago nekerik! Alaitasuna eta animoa bai, ordea. Gehiago jakiteko sar zaitzete blogean eta zeuek ikusiko duzue.

Guzti honek merezi du, bai, blog bat, eta gehiago! Zorionak gazteok!

aateskurtze.blogspot.com

Automozioa ikasten

**Arruntegia ez den formakuntza ziklora hurbildu gara: Automozio-
ra. Eskurtze institutuko Mariak eta
Abelek, biak Automozioiko ikasleak,
euren iritzia eman digute.**



Zerk ekarri zintuzten Automozioa ikastera?

Maria: Elektromekanikako zikloa egin nuen lehenengo, eta, lanik ez zegoenez, Automozioarekin jarraitzea erabaki nuen.

Abel: Nire kasuan, aitak auto tailerra duenez, ofizioarekin jarraitzeko gai izan nahi nuen, eta, noski, autoak gustuko ditudalako.

Gogorra da disziplina hau?

M: Inork ez dizu oparirik egingo, lana egin behar duzu.

Esan hitz bitan Automozio ikasketek duten onena eta txarrena.

M: Alderdi ona, gustatzen zaizuna ikasten ari zarela; txarrena, hasieran praktika gutxi egiten direla, eta hainbat jende batzen dela tailerrean.

A: Txarrena, asko ikasi behar dela elementu

bakoitzaren funtzioak jakiteko, eta onena, ikasi ondoren, ulertzeko eta konpontzeko gai zarela.

Ofizioa ala bokazioa da zuena?

M: Bokazioa.

A: Ofizioa dela esango nuke.

Nola ikusten duzue etorkizun laborala?

M: Tailerren batean lan egiten, espero dut.

A: Autoen inguruko edozein lanetan.

Amets egiten hasita, nola irudikatuko zenukete zeuen burua lanari dagokionez?

M: Lanik egon ezean, ikasten jarraituz.

A: Nire kontura lan egiten, bestela aitarekin lan egin eta, lehen esan dudan bezala, tailerra eroateko gaitasunarekin.

Automozioiko ikasleak autoekin eta auto karrekin zoratuta bizi zarete, egia ala mitoa?

M: Nire kasuan, mitoa.

A: Denetik aurki dezakezu. Argi dago, automozioa gustuko baduzu autoa gidatzeak emozionatzen zaitu, baina hor ere, talde bi daude: batetik, lasaiak, eta bestetik, ausartak.

Amaitzeko, etorkizun laborala Euskal Herrian ala munduan zehar aurreikusten duzue?

M: Hemen lana balego, hemen. Baina ez badago, zergatik ez hemendik kanpo? Baina gaztelania hitz egiten den tokiren batetan, ezen hizkuntzak...!

A: Gaur egun, Bilbon ikusten dut nire etorkizuna, baina gauzak ondo joango ez balira, edo familiako negozioak etorkizunik ez balu, kanpora joango nintzateke lan bila.



Elkarrizketa Mirane Etxebarriari

Mirane Etxebarri, 22 urteko algortarra da. Irakasle karrera amaitu ostean, orain, Eskurtze Institutuan, Haur Hezkuntzako moduluko ikasketak egiten ari da. Kirolari aparta da, Getxoko Neske Errugbi Taldean jokatzeko du.

Nola hasi zinen errugbian jokatzeko?

Hamar urte nituela lagun batekin animatu nintzen. Jolas asko egiten genituen baina azkenean beste kirol bat egiteagatik utzi nuen. Handik bost urtera, ikastolara neskak jolasten animatzeko etorri zirenean, berriro bueltatu ginen. Mutilekin batera ere jokatu izan dut 15 urte bete arte. Hortik aurrera, oraingo taldean nabil.

Zer esaten zizuten etxekoek?

Kirol asko egiten ditut eta beti lagundu didate. Noizbait, amak beste zerbait egitea gustatuko litzaiokeela esan dit, baina orain partidu guztietara etortzen da.

Zein da pisu ideala errugbian jokatzeko?

Beste kiroletan ez bezala, neurri eta tamaina guztietakoak jolastu dezakete, ez da behar pisu idealik. Gorpuzkeraren arabera eta gaitasunen arabera, posizio batean edo bestean jolastuko da; horrela ez dago arazorik.

Dirurik irabazten da errugbiarekin?

Emakumeok dirua irabaztera heldu gaitzke, baina momentuz profesionalak izatera ez. Espero dut hemendik gutxira jokalariai profe-

sionalizatu ahal izatea, beren errendimendua asko haziko litzatekeelako, eta emakumeen maila handitu.

Noraino iritsi zara errugbi munduan?

Talde mailan, Euskadiko Liga hainbat urtez jarraian irabaztera heldu gara, eta Espainiako Kopan parte hartzen dugu. Maila pertsonalean Euskal Selektioarekin jokatu dut.

Berdina da gizon-emakumeen errugbia?

Ez da batere berdina. Neska oso gutxi gaude, beraz, aukera gutxiago ditugu maila hobetzeko. Oso konpetentzia gutxi dago, eta desberdintasun handiak daude. Ez dago aukerarik maila desberdinak banatzeko. Beraz, taldeetan oso jende berria edo asko dakien jendea elkartzeko gara.

Sarritan lesionatzen zarete?

Lesioak normalak izaten dira. Baina hau ekiditeko entrenatzen dugu, eta giharrak sendotzen ditugu. Gehienetan bihurridurak edo ligamenduak izaten dira, baina beste kiroletan bezala.

Zer gomendatuko zenieke gazteei?

Beldur gabe hurbilen daukaten errugbi-zelaira hurbiltzeko esango nieke. Beldurrik ez izateko, benetan kirol polita delako. Hasieran, gauza guztiak bezala, zaila den arren, taldeetan giro oso ona egoten dela, eta jende berria etortzeko irrikan egoten garenez, frogatzera animatuko nituzke.





Euskal Herria zeharkatzea
 Korrikaren ezaugarri
 euskalari asko ikustea
 izaten da zoragarri
 lekukoari denok helduta
 euskaldun zahar zein barri
 gure hizkuntza galdu ez dadin
 eman euskara alkarri!

Garazi Erezkano

Andoainetik Baionara arte
 daude kilometro pila
 lekukoa aurrean dagoelarik
 giroa da borobila
 karrika artean entzun dadila
 oihu eta iskanbila
 herri arteko elkartasuna,
 itzela izan dadila!

Urdax Antepara

Badator KORRIKA 18!



harrapa zank

2013

harrapazank.com



harrapazank
eszena



BILBOROCK-EN

gala nagusia
martxoaren 23an



sortuzank
tailerrak



ARGAZKILARITZA



GRAFITIA

MODA



MUSIKA



erakusketa
martxoaren 16an